

## **Kontrabandako produktuak**

M.: ta gero Mendiben bazien jandarmak lau, eta guardak bazien hamabi, kusten duzu? Hamasei familia hor bazien, geo bazen usine-a re, baizu, Iratiko egurraikin-ta, ordian Mendibe pollita zen erria, ta oai jeusik ez da.

E.: oai jeusik ez xu, ez.

M.: ez da guardaik, ez da jandarmaik, ta guarda horiek bazien eskualdunak, edo eskualdunak maztiak, eh be, oiala maztek falta baitzuten, ene aita furnitzen zen, ta senarra ez zen ahalaz han, oialekin joaiten zirelaik, edo han balin bazen e ateatzen zen.

E.: so ixu.

M.: ez zuten deus e ikusten guardak, haurrak bear baitzien beztitu, ta hala, oial oriek, delako Koakin orbaitzetarrak ekartzen zitien,

E.: so ixu.

M.: ua zen artzen horraat eta Eztengibeleat, eta etxetaat.

E.: oihalekilan?

M.: ba, pantalon, ta Españan, jaanik, hasia zen oialeria, baizu, hemen Frantzian ticketekin zen, ta hek bazuten, kontent ziren zeit balin bazen, apepres adina erran-ta pantalonak largoei edo ixtorio, banan akomatzen... Ez zinin gieleat uzten, eh!

E.: ez, zarri hau, zintura ta fini, denak inak.

M.: (irriak) edo zinta, baizu, ono, zen inguratzen zena.

E.: hola lokharri at ere berdin, soka at, edo... Ze desgrazia ordian ere, ba Aezkoan eta ba hemen ere, bietan gerla pastu berria.

M.: denetan miseria.

E.: miseria.

M.: han miseria ta hemen e ba, hek ez zuten sakarinaik, eta alo, sukreak-eta, Españan ez zen, eta hemen sakarina, ez dakit zertako, débrouillatzen zen, jendek bazuten, eta dena saltzen zen Españaat. Radioik e ez zuten, ez zuten libro re, ordian radioak e, TSFak... TSFak zien ordian, eh! Radio xinpliak, hementik joaiten zien, hemen bazien saltzeko, eta Españan, nik uste ez zuten dretxoik, baizu, ez zen bear.

E.: Franco...

M.: ba, ba.

E.: ez bitzen zernai intzuten ahal ere, zernai gauza jakiten ahal ere.

**Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala